

## Azaroak 30, hiri hezitzailearen eguna: hezkuntza programak hiriko ikastetxeetan

Azaroaren 30ean Hiri Hezitzailearen nazioarteko eguna ospatuko da "Hiri hezitzailea ikaskuntza, herritartasunaren eta gizarte-eraldaketaren laborategi" izenburuarekin.

Donostiako Udalak, RECE (Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarea) eta AICE (Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarte) elkarreetako kide gisa, bat egiten du ospakizunarekin, eta Hiri Hezitzaile gisa duen konpromisoa berresten du. Eta, horretarako, Udal barnean zein hiri mailan sor daitezkeen elkarlanak sustatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, Donostia ikaskuntzen, herritarren eta gizarte-eraldaketaren benetako laborategi izan dadin.

Testuinguru horretan kokatzen dugu hain zuzen Udaleko Hezkuntza Sailak bultzatutako hezkuntza-programen antolaketa; hiriko ikastetxe ugarian eta adin ezberdinetako derrigorrezko hezkuntzako ikasleentzat zuzentzen direnak.



Horien arten da **“PATIO IREKIAK plan onean”** deritzona nabarmendu nahi dugu. Donostiako bi ikastetxeetan (Hegoa eta Herrera) garatzen ari da, eta Donostiako udala eta Madrilgo CSAI Fundazioaren elkarlanaren fruitua da.

Gaur goizean Herrera ikastetxean izan dira Donostiako Udalaren aldetik **Iñigo Garcia, Udaleko Aniztasun, Inklusio eta Ingurumeneko zinegotzi delegatua** eta, CSAI Fundazioaren aldetik, **Tatiana Barrero Buch eta Elena Juliana García Tardón** Madrilgo haurren gaietarako teknikariak; Herrerako programan parte hartzen ari diren ikasleak bertan zirela.

**CSAI Fundazioaren** "Patio Irekiak Plan Onean" proiektua, Espainiako Osasun Ministerioak sustatu du haurren, nerabeen eta haien familien bizitza hobetzeko helburuarekin. Programa honen helburua osasuna eta bizimodu osasungarriak sustatzea da, ongizate orokorrean eragin positiboa sortuz. Donostian, bi ikastetxetan egiten ari da: Intxaurrondo Hegoa eta Herrera HLHI.

**Iñigo García** adierazi duenez, "Patio irekiak programa interesgarria da osasunaren eta haurren ongizatearen ikuspegitik. Gainera, funtsezko elementu guztiak ditu desberdintasuna murrizteko, kohesio soziala sortzeko eta haurren loditasun arazoa murrizteko, hori baita gizarte gisa dugun erronka handienetako bat".

Bestalde, **Tatiana Barrerok** azpimarratu duenez, programak "bizitza-estiloen eraldaketa osasungarria bultzatuko duten eskolaz kanpoko jardueren eskaintza bermatzen du eta era horretan jarduera fisikoa, elikadura osasungarria, ongizate emozionala eta gomendatutako lo-orduak areagotzeko bidean esku-hartze integrala proposatzen du".

Osasun Ministerioaren CSAI Fundazioaren "Patio Irekiak Plan Onean", **Haurren Loditasuna Murrizteko Nazio mailako Plan Estrategiko Nazionalaren** barruan kokatzen da eta dagoeneko ezarri da Kanarietako eta Madrilgo Erkidegoko zenbait ikastetxetan.

Lan egiteko moduari dagokionean, jolastokiak eta gainerako instalazioak eskola-orduetatik kanpo erabiltzen dira eta, jarduera ludikoen eta tailerren bidez, espazio horiek dinamizatzea bilatzen da ariketa fisikora bideratutako kalitatezko jolas-eskaintza ematearekin batera. Era berean, eta ingurune kalteberetan, haurren eta haien familien bizimoduan aldaketa positibo bat bultzatu nahi da.

Horretarako, jarduerak eta tailerrak egitearen ardura duten taldeek prestakuntza espezifikoa jasotzen dute eta lagungarri zaien gida eskaintzen zaie parte-hartzaileen behar fisiko eta emozionalak kontuan hartuko dituen ikuspegi integrala bermatzeko.

Donostian urrian hasi ziren jarduerak Herrera eta Hegoa ikastetxeetan eta guztira, jarduera eta tailerren bidez, 80 haur eta haien familiek parte hartuko dute.

Gainera, eskuliburu bat sortu nahi da eta programarako ebaluazio-plan bat egingo da, izandako esperientzia oinarri hartuta eta funtsezko ondorioak eta ikaskuntzak ateratzeko.

**Gainerako programei** dagokienez, aurten Udaleko Hezkuntza Sailak honako programa hauek bultzatu ditu:

- **Eskola Kontzertuak** : Euskadiko Orkestrak, Donostiako Udaleko Hezkuntza Atalarekin lankidetzan, antolatzen ditu Musika Gela zikloaren barruan. Haurrentzat eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat da eta helburua da herritarrei eta bereziki gazteei musika hurbiltzea. Hiru ekoizpen propio aurkeztu dira aurten: Misterioa, Ilargiari kantari eta Logelan logale. Eta, berrikuntza gisa, ikasleek abesbatzekin eta orkestrarekin abestuko dute maiatzean Kursaalako auditoriumean. Aurreikuspenen arabera, 8.000 ikasle inguru joango dira Kontzertuetara, Gipuzkoa osoko 44 udalerritako 100 ikastetxetakoak.

- **Deseraikiz**: sexu-aniztasuna eta desberdintasunak ikuspegi positibotik lantzeko helburua duen proiektua da. Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin lantzen ari da Donostiako 15 ikastetxetan; Lehen Hezkuntzako 6. mailako 25 geletan eta 3 ikastetxeetako DBHko 9 gelatan.

- **Deskonektatuak** : gazteen mendekotasun teknologikoa lantzeko saioak dira eta ikasgeletan mikroantzerkia eta parte hartzeko tailerrak eskaintzen dira. 12-13 urte bitarteko ikasleentzako proiektua da eta bi aktorek dinamizatzen dute. Guztira 30 saio eskainiko dira 9 ikastetxetako Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleentzat.

- **Sexuen Heziketa Integrala**: 11 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendutako programa da eta sexualitatearen kontzeptua zabaltzeko eta sexualitatea modu integralean garatzea du helburu. 5 ikastetxetako 11 gelatan, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak jasotzen ari dira formazioa.

- **Maitasun erromantikotik harreman parekideetara**: harreman afektiboari buruzko saio teoriko-praktikoak dira eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzentzen dira. Hauek dira landutako gai nagusiak: afektuak eta emozioak; erotika eta desioa; generoaren eraikuntza; gorputz-aniztasuna; sexu-praktikak; tratu ona eta botere-harremanak. Bi ikastetxetako 6 geletan egiten ari dira saioak, Bigarren Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleentzat.

- **Mundu pitzatu batean ibiltzea**: 7 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 14 ikasgeletan eskaintzen ari diren prestakuntza-saioak dira. Helburua honakoa da: haurren eta nerabeen mundu-ikuspegia ezagutzeko eta haien ikuspuntuen, ideien, sentsazioen eta

